

## **Txiletar ordezkaritza bat Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien Fakultatean bisitan**

2007/11/22

Azaroaren 8 eta 18a bitartean, Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien Fakultateak txiletar ordezkaritza baten bisita jaso du, hain zuzen ere "Comuna de Salamanca IV Región"eko ordezkariak eta "Región de Coquimbo" eskualdeko Idazkariak osatutakoa.

Bisita honen helburua, gure inguruan ekintzailetasun eta gizartearekiko erantzukizunaren esparruan dauden esperientziak eta alde edo talde behartsuekin dauden proiektuak ezagutzea izan da.

Helburu honi erantzuteko antolatu den ekintza eta bisita egitarauan, ordezkaritza honek, Oñatiko Udala, Eusko Jauriaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, MCC, MIK, SAIOLAN, ULMA Taldea, UPTC eta unibertsitatea bera bisitatu ditu eta bertan, agintariak edo ordezkaritza honek interesa azaldu duen gaietako programen zuzendari eta arduradunek hartu dituzte.

Azkenik, eta topaketa honen ondorioz, Mondragon Unibertsitateak lankidetzaren hitzarmen bat sinatu du ordezkaritza honekin, aurretik aipaturiko esparruetan hainbat proiektu abian jartzeko.

